

EHIGE

GURASOEN ELKARTEA

Euskal Herriko Ikasleen
Gurasoen Elkarte

udazkena 2007
1. zenbakia

“Ekiten ikasi,
bizitzen ikasi”

Hiritartasun eta Giza
Eskubide Hezkuntza

Kontsumo arduratsua

Samaniego ekoeskola

Gorren integrazioa
Zubileta eskolan

Javiki egitasmoa

Frisiarra, Europako
hizkuntza gutxitua



Begiratu zientziari beste era batera

Mira la Ciencia con otros ojos

gizarte ekintza
obra social

hezkuntza
educación



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Kutxak, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du, **Zientziaren kutxaGunea**.

Ingurunean duguna hainbat sistema elkarrengileren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ukitu, behatu, ulertu, gozatu egin baitezakezu.

- 170 esperimendu interaktibo.
- 10 erakusketa finko (gaikakoak).
- Planetarium digitala eta Planetarium Txikia (umeentzako).
- Elektrizitate-tailerra.
- Denboraldi baterako erakusketak.
- Ikastetxeetarako hezkuntza-programak eta material didaktikoa.
- Animazio-ekintzak eta adin guztietako jendearentzako zuzeneko ikuskizunak.
- Aparkalekua, dohainik.

Kutxa, a través de su Obra Social, ha descubierto la fórmula para que la ciencia sea más divertida, **kutxaEspacio de la Ciencia**.

Un centro pensado para comprender lo que nos rodea mediante sistemas interactivos. Aquí puedes tocar, observar, comprender, disfrutar.

- 170 experimentos interactivos.
- 10 exposiciones temáticas permanentes.
- Planetarium digital y Planetarium Txiki (infantil).
- Taller de la electricidad.
- Exposiciones temporales.
- Programas educativos y material didáctico, para centros escolares.
- Actividades de animación y espectáculos en directo para todos los públicos.
- Parking gratuito.

Mikeletegi Pasealekua 45. DONOSTIA

Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara)
Larunbat, igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara)
Itxita egongo da astelehenetan (abuztuan izan ezik) eta egun hauetan: urtarrilaren 1ean, urtarrilaren 6an, urtarrilaren 20an eta abenduaren 25ean. Goizez bakarrik egongo da zabalik abenduaren 24an eta abenduaren 31n.

Mikeletegi Pasealekua 45. SAN SEBASTIAN

Martes a viernes de 10:00 a 19:00 (20:00 en verano)
Sábados, domingos y festivos de 11:00 a 19:00 (20:00 en verano)
Cerrados los lunes (excepto en agosto) y los días 1, 6 y 20 de enero y el 25 de diciembre.
Abierto sólo por la mañana el 24 de diciembre y 31 de diciembre.




znbk.



06



12



20



Ziztuaz

04 Berriak

Kronika

06 Ekintzailetasunari buruzko jardunaldiak

08 Hiritartasun eta Giza Eskubide Hezkuntza

10 Kontsumo arduratsua

12 Eskola Mapa berria

Esperientziak

13 Samaniego ekoeskola

14 Gipuzkoa, Ekintza Magistralaren sariketan nabarmen

16 Drogazaletasuna prebenitzeko esperientzia Sestaon

17 Gorren integrazioa Zubileta eskolan

18 Emoziozko Adimena familian

19 Mintzalaguna programa Gasteizen

20 Hezkuntzari buruzko informazio bulegoa

21 Jakivi proiektua

22 Eskola txikiak ere martxan

23 Frisiarra, Europako hizkuntza gutxitua

EHIGEek ez ditu bere gain hartzen derrigorrez artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak. Bere iritzia izenpeturik agertuko da beti.

staff

Argitaratzailea: EHIGE

Koordinatzailea: Lurdes Imaz

Federazioetako ordezkariak: Ibon Idirin, Rosa Izquierdo, Paloma Migliaccio

Kolaboratzaileak: Zaroabe BHI, Paco Delgado, Jorge Madariaga, José Morgado, Jesús Mari Arizmendi

Diseinua: [i]jmolina - THEINIT

Argazkiak: Imanol Lara, federazioak

EHIGE aldizkaria D. L.: BI-1289-90

zizuan



KARMELE ALZUETA SARIA ZAMAKOLA-JUAN DELMÁS ESKOLARENTZAT

Bilboko Zamakola-Juan Delmás eskolak irabazi du Hezkuntza Berriztapeneko proiektu onenaren Karmele Alzueta saria. "Bizi gaitezen elkarrekin" egitasmoari esker 15.000 euro jasoko ditu lehen hezkuntzako ikastetxe honek. ZORIONAK!

www.zamakolaeskola.com

ALKARTU IKASTOLAK 40 URTE

Barakaldoko Alkartu ikastolak 40 urte ospatzen ditu aurten.

ZORIONAK!

www.alkartuikastola.com



DENON ESKOLAREN ASANBLADA

Denon Eskolak Ohiko Batzar Orokorra ospatu zuen joan den azaroaren 24an Denon Eskolaren egoitzan bertan. Batzar Orokorrean 06-07 ikasturteko memoria eta kontuak alde batetik eta 07-08 ikasturterako egitasmoa eta aurrekontua aprobatu ziren. Era berean sortu berriak diren Lakuabizkarra eta Zabalgana ikastetxeetako guraso elkarteei ere ongietorria eman zitzaien Federaziora.

www.denoneskola.org



BI URTEKO GELA ERABERRITUAK OÑATIKO ERREKALDEN

Bi urteko gelak eraberritu ditu Oñatiko Errekalde Herri Eskolak. Elkarren ondoan zeuden gelak berrantolatu eta 185 metro koadroko erabilera anitzeko aretoa sortu dute. Beharren arabera, aretoa, gela bakar edo bi gela berezitu gisa erabili daiteke. Konketa eta komunen gela bereziki zaindu da eta ikasle txikienek erabiltzen duten "siestarako-gela" ere aretoan integratu da. Guzti honi esker areto argitsu, zabala eta alai prestatu da. Haur hezkuntzako lehen mailan matrikulatutako 28 neska-mutikoak gela berrietan dira jada.

www.goieskola.net

IKASKETA BEKAK NIKARAGUAKO KALEKO UMEENTZAT

BIGE Gurasoen Elkarteak "Ikasketa beka +, hurrek lan -" kanpaina jarri du martxan eskolarako beka lortzeko Nikaraguako León hiriko kaleko umeentzat. Beka bakoitza 200 eurokoa da eta ume bakoitzak ikasturte osoan eskolara joateko behar dituen material guztiak (liburuak, koadernoak, arkatzak, ...), eskolarako uniformeak, garraioa eta abarren gastuak ordainduko ditu.



ZARAOBE BHI-K ZILARREZKO Q

Zaraobe BHIk zilarrezko Q saria jaso du kalitatezko kudeaketa bikainagatik. Zaraobe Amurrion, Araban, kokatuta dagoen ikastetxe publikoa da eta bere helburuen artean eskualdean prestigiozko erreferentzia zentro euskalduna izatea da. Horretarako hezkuntza eskaintza zabala daukate: DBH osoa, batxilergo hiru modalitate, heziketa zikloak eta lanbide hastapenerako ikastaroa eta kalitatezko kudeaketa sistema. Sari honen atzean ikastetxeak ibilbide luze bat izan du kalitatezko irakaskuntza publiko bat eskaintzeko. Ibilbide honetan funtsekoak izan dira langileen (irakasleak zein ez irakasleak), familien eta aliatuen (eskualde honetako udalak, eraginguneko ikastetxeak eta enpresak) ahalegina eta inplikazioa.

www.zaraobe.net

BAKEAREN ALDE KULTURARTEKO ASTEA BASAURIN

Abenduaren 10etik 15era bitartean Bakearen Alde Kulturarteko astea ospatuko da Basaurin. Erakundeek gain, Basauri eta inguruko ikastetxeak, Bizkaiko beste lau ikastetxeak eta BIGE Gurasoen Elkarteak parte hartuko du. Denetariko ekintzak prestatu dituzte: kulturarteko jokoak, Gabonetako postalen lehiaketa, "La Oca de Basauri" jokoak, erakusketak, antzerkia, kontzertuak, bidezko merkataritza, ludotekak, tailerrak, eta abar.



remanaportlapaz.googlepages.com



BAIKARAREN FORMAZIO ESKAINTZA IKASLEENTZAT

2007-2008 ikasturtean Baikatik ikasleriari zuzendutako formazio eskaera inoiz baino hedatuagoa dago. Bertan landutako programak Gipuzkoako toki oso anitzetara ailegatzen ari dira, bai hiri eta baita herri txikietara ere.

Programa guztiak biribiltzen dituen balioa elkarbizitza izanik, ikasleriak hauetan izandako bizipena baikorra izaten ari dela azpimarratzekoa da. Hain zuzen ere, lehiatzean hobeto pasatzen dugunaren ustea zabaldua egon arren, gure ekintzetan kooperatzean ondo pasatzeaz gain denok taldearen parte garrantzitsu sentitzen baikara.

www.baikara.org

Kronika I

“Ekiten ikasi, bizitzen ikasi”



Euskal Herrirako Curriculuma proposamena aurkeztu genuenetik, EHIGE, Bille eta Sarean erakundeok Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar ekimenean sakontzen jarraitu dugu.

Horrela Donostian ospatu berri dugun “Ekintzailetasuna eta adimen emozionalaren heziketa” jardunaldian “Ekiten ikasi, bizitzen ikasi” ponentzia aurkeztu dugu, curriculumaren inguruan egindako lanaren garapena dena.

Dokumentu honek hezkuntzaz arduratzen garenontzat hausnarketarako dokumentua izan nahi du. Bertan zuzentasun eta elkarbizitzaren ikuspegitik benetako gizarteratzea lortzeko neurriak eta bideak proposatzen dira.

Orri hauetan ponentziaren aurkezpen txiki bat egin nahi dugu baina ponentzia osoa www.euskalherrirakocurriculuma.org web orrian, “Jardunaldiak” atalean lor dezakezue.

Ana Eizagirre
EHIGEn koordinatzailea



NAZIOARTEKO TESTUINGURUA: EUOPAR BATASUNA ETA LEHIAKORTASUNAREN ALDEKO APUSTUA EUOPAR BATASUNAREN ERRONKAK

- Enplegutasuna.
- Ezagupenaren gizartea.
- Lehiakortasuna.
- Globalizazioari aurre egin.
- Hezkuntza sistemaren eta enpresaren arteko gerturatzea.
- Lanbide eta tituluen karta.
- Ekintzailetasuna.

EUOPAR EKIMENAK EKINTZAILETASUNAREN ARLOAN

Euskal Herriaren esparruan gobernu autonomiko eta foru aldundiekin loturiko programak dauzkagu ekintzailetasun ekimenen sustatze lan handia eginez. Horietako batzuk hauek ditugu: "Ekiten Ikasi", "Escola Merkatura doa", "Enpresa Gaztea", "Ekimenerako Hezi", "Enplegatu zure burua", "GEN" Nafarroa, "CEIN" (Nafarroa), "Gipuzkoa Berrikuntza eta Ezagutza Lurraldea", "Ikasmina", "Ekinez ekin", "TKNIKA", "Urratsbat", "Ariadna", "Lamegi", "Ematek", "Zabalan", "Itun", "Zurekin", "Sarean", "Gertu", "Hazilan", "Aurreratu Auzolan" eta abar.

EKINTZAILETASUNA ESTATUKO HEZKUNTZA LEGETAN LOE (2006) ETA EKINTZAILETASUNA.

- Hezkuntza sistemak kapokaldara ireki.
- Hezkuntza sistema ekonomia sistemarekin lotu.
- Ekintzailetasunaren izpiritua, ekimena eta sormena garatu.

EKINTZAILETASUNAREKIN LOTURIKO EKIMENAK AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO CURRICULUMETAN

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen Dekretuaren zirriborroan (2007) esplizituki adierazten da ekintzailetasunaren garrantzia, konpetentzia orokorren mailan kokatuz. Bai Euskal Herrirako Curriculumak zein "Derrigorrezko eskolaratze aldirako Euskal Curriculumak" haien proposamenetan jasotzen dute eta etengabeko aldaketen gizaratean ekiteko ahalmenaren garrantzia azpimarratzen dute.

Nafarroako Foru Komunitatean, 24/2007 Dekretuak, martxoaren 19koak, Lehen Hezkuntzako irakaskuntzaren Curriculumak zehazten du eta 25/2007 Dekretuak, martxoaren 19koak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumak zehazten du. Lehen Hezkuntzako dokumentuak ez du ekintzailetasunaren aipamenik egiten (nahiz eta konpetentzia horrekin loturiko esparruak garatzen dituen). Halere, bigarren hezkuntzako proposamenak 2g artikuluan etapa horretako helburu garrantzitsuenen artean "izpiritu ekintzailea eta konfiantza, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala eta ikasten, planifikatzen, erabakiak hartzen eta erantzukizunak hartzen ikasteko ahalmena garatzea" ezartzen du.

ERKIDEGOETAKO CURRICULUMAK GAI HAUEI BURUZ ARITZEN DIRA:

- Norbanako ekimena eta zailtasunak gainditzea.

- Proiektuen planifikazioa eta kudeaketa.
- Erantzukizunak hartzea eta etengabeko hobekuntza.
- Arazoak konpondu eta erabakiak hartzea.

EKINTZAILETASUNAREN KOKAPENA GURE CURRICULUMAREN MARKOAN: EUSKAL HERRIRAKO CURRICULUMA

Euskal Herrirako Curriculumean garatutako ekintzailetasunaren nozioak ez du terminoaren enpresa munduko esanahian gelditu nahi. Gure ustez, ekintzailetasunak pertsonentzako bizitza oso baten proiektuaren oinarriak prestatzen lagundu behar du. Ekintzailetasunarekin lotutako konpetentzien garapenaren helburua bizitza proiektu baten inguruan murgiltzen da. Ekintzailetasuna gizabanakoarentzat bizitzaren edozein esparrutan interesekoa den proiektu bat edo gehiago hasteko edo ekiteko ahalmen legez ulertzen dugu. Intentzio eta helburu hauek garapen pertsonal, sozial, ekonomiko, kultural, politiko eta abarrekin loturik egon daitezke. Hobeto bizitzeko ekiten da, hiritarrentzako bizitza kalitate duina lortzeko.

Hezkuntzak belaunaldi gazteen formazioaren alde lan egin behar du.

Hauek dira etorkizunean gizartea gidatuko dutenak, eta horretarako modu egokian hezi behar dira. Komunitateak eskatzen dituen betebeharrak bere gain hartzeko formatu behar da gazarria Formazio prozesu honi gizarteratze edo sozializazio deitzen diogu eta funtsean familia, eskola, berdinen taldea eta gizarite kolektiboen ardura da.



EKINTZAILETASUNA ESKOLAN

"Ekiten ikasi, bizitzen ikasi" txostena aurkeztu genuen Donostian ospatu berri dugun "Ekintzailetasunaren heziketa eta adimen emozionala" jardunaldian. Curriculumaren inguruan egiten ari garen lanaren garapena da hau.

Kronika 2

Hiritartasun eta Giza Eskubide Hezkuntza



OINARRIZKO HEZKUNTZAREN CURRICULUMA EZARTZEAREN ONDORIOZ, HIRITARTASUN ETA GIZA ESKUBIDE HEZKUNTZA IZENeko IRAKASGAIA IRAKATSIKO DA DATORREN IKASTURTEAN EAEko IKASTETXEETAN. NAFARROAN AURTEN JARRI DA MARTXAN IRAKASGAI HAU.

Urriaren 16an onartu zuen Gobernuaren kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumuma sortu eta ezartzea. Horren ondorioz Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta Bigarren Hezkuntzako 3. mailan irakatsiko da Hiritartasun eta Giza Eskubide Hezkuntza izeneko irakasgai berria. Gutxienez ordubete eskainiko zaio astero irakasgai berriari, bai Lehen Hezkuntzan eta baita Bigarren Hezkuntzan ere.

INFO +:

www.aulaintercultural.org
www.educacionenvalorer.org
www.educarenigualdad.org

Horretaz gain, Etika eta Gizarte Hezkuntza izeneko irakasgaia emango da DBHko 4. mailan eta Batxilergoan Filosofia eta Hiritartasuna izeneko irakasgai komuna emango da.

Justizia, elkartasuna, lankidetzeta, beste pertsonak zaintzea, erantzukizuna, parte-hartzea, errespetua, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, elkarbizitza, aniztasuna, gizakien arteko erlazioak eta antzeko baloreak landuko dira irakasgai berrian.

Izan ere helburu asko ditu irakasgai berriak. “Globalizazio kulturala eta ekonomikoa, ezagutzaren kudeaketa, etengabeko aurrerapen teknologikoak eta orokorrean gizarte garapenak dakartzan eskakizunei aurre egingo dien hiritartasun praktikoa” landu nahi da irakasgai honetan. Gainera, “errealitateari aurre egin ahal izateko arazoizko balore-printzipioak lantzen lagunduko duten banakako eta taldeko hausnarketarako guneak sortu nahi ditu”.

Azken finean irakasgai bat baino gehiago da Hiritartasun eta Giza Eskubide Hezkuntza, “eskolako elkarbizitza eraikitzeko ardatza da”. Ondorioz, hitza eman beharko zaie ikasleei, familiei eta eskola-komunitateko gainontzeko estamentuei.



IKASGAIAREN EDUKIAK

LEHEN HEZKUNTZA

- **1. multzoa:** Gizabanakoak eta pertsonen arteko harremanak eta harreman sozialak
- **2. multzoa:** Bizitza komunitatean
- **3. multzoa:** Gizartean bizi

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

- **1. multzoa:** Eduki amankomunak (diskurtso pertsonalak prestatu arrazionalki eta abar.)
- **2. multzoa:** Elkarbizitza
- **3. multzoa:** Partehartzea
- **4. multzoa:** Mundu anitza
- **5. multzoa:** Generoa eta gizarte sareak
- **6. multzoa:** Demokraziaren aurrerapena

ETIKA ETA GIZARTE HEZKUNTZA (DBH 4.)

- **1. multzoa:** Eduki amankomunak
- **2. multzoa:** Identitate eta bestetasuna
- **3. multzoa:** Teoria etikoak. Giza eskubideak
- **4. multzoa:** Etika eta politika. Demokrazia. Balore konstituzionalak
- **5. multzoa:** Egungo munduaren gizarte arazoak
- **6. multzoa:** Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna.

Joan den urriaren 20an Denon Eskola Arabako Guraso Elkarteen Federazioak "Eskola eta Laikotasuna. Hiritartasun Hezkuntza" jardunaldia antolatu zuen. Helburua eskola laikoa eta Hiritartasun Hezkuntza ikasgaiaren inguruko hausnarketa egitea izan zen. Horretarako hizlari gisa hezkuntzan aditua den Paco Delgado egon zen. CEAPA-ko presidente ohiak atsegin handiz hainbat galdera erantzun digu.

"Familiek ikasgaiaren helburuak betetzea eskatu behar dute"

-Zure ustez ikasgai berria ez da informazio edukietara mugatu behar. Nola landu beharko litzateke?

Ziurrenik Euskadin 2008-2009 ikasturtean ezarri behar den ikasgai honen inguruan hainbat hausnarketa zabaltzen ari da, askotan norabide ezberdinetan eta kontrakoak, eta beste kasu askotan alde batetik eta bestetik errealitatea distortsionatuz.

Noski ez dela zeharka gizarte zientzien ikasgaiaren bidez eman litezkeen edukien transmisio soilak izan behar. Haren helburuetan XXI. mendeko gizartearentzat berebizikoak diren gaiak planteatzen dira. Irakaste espazio hau, lehen hezkuntzako maila batera eta bigarren hezkuntzako beste batera mugatzen dena, harago joan behar da eta ez gelditu hiritartasun, giza eskubide, instituzio, lege, zuzenbide estatu, bide heziketa eta era horretako ezagutza konkretu batzuetan. Pentsamendua, arrazoiaketa, ahalmen kritikoa, gatazkak konpontzeko bidea, demokrazia kontzeptuaren ulermena, hiritarrek maila indibidualean zein kolektiboan dituzten eskubide eta betebeharren onarpena, aniztasuna ulertu eta auto-estimua garapena, afektibotasuna eta autonomia pertsonala eta era horretako kontzeptuak sustatu eta piztu beharko lirateke. Ez da gutxi! Helburu hauek betetzen diren ala ez guztiaren gako da.

-Eta nola prestatu behar da irakasleria?

Ba lehenago aipatutako helburuen arabera. Ez du edozein irakasle baliok, ikasleria pizteko nahia eta gaitasuna duten pertsonak izan behar dira, sinesten dutenak, komunikazio eta arrazoiaketa ahalmena eta egungo nerabeetan azalera ari diren identitateen inguruan ezagutza maila altua daukatenak. Eta horretan oinarritu behar da haien formazioa; ez dauka garrantzirik haien irakasteko gaitasuna humanitate edo zientzietatik etortzea. Beraz Hezkuntzaren arduradun politikoei asko zaindu behar dute gai hau. Ez badute horrela egiten ikasgai berri honek ez du zentzu handirik izango.

-Ikasgai berriaren edukiak lantzeaz gain ikastetxea demokratikoki antolatzeaz hitz egiten duzu. Nola? Zer suposatuko luke horrek egunerokotasunean?

Bistan dago demokrazia, eskubide eta betebeharrak, hiritartasun kontzeptua, aniztasuna ulertzea eta abar kontzeptuak pizteaz gain, bizi egin behar dira egunero pertsonen arteko harremanetan, irakasle eta ikasle artean, gela barruan eta kanpoan, ikastetxearen antolaketan. Umeak haien ikaste prozesuan garrantzitsu

sentitu behar dira, ikastetxearen parte garrantzitsu sentitu behar dira... horrek haien motibazio maila igotzea eragingo du.

-Zure ustez ikasgai berri honi egokitu zaizkion orduak gutxi dira. Zenbat izango lirateke beharrezkoak?

Modu egokian eman nahi bada protagonismo gehiago eman behar zaio, eta ez bada horrela egiten soberan daude ordu guztiak.

-Zer esango zenieke familiei ikasgai berriaren inguruan?

- 1.- Aurreiritzirik gabe hartzea.
- 2.-Doktrinatzeko balioko duela esaten dutenei kasurik ez egitea, hori esaten dutenak baitira eskoletan doktrinatzeko dabilzanak aspaldidanik eta erlijioarekin eta baztertzaila den moral jakin batean eskusibotasuna dutela uste dutenak.
- 3.-Ikasgaiaren helburuak eta lehen aipatutako ikasle gaitasuna betetzea eskatzea.
- 4.-Irakasle deontologia profesionalean sinistea.



Paco Delgado
Hezkuntzan aditua

ESKOLA ETA LAIKOTASUNA

Eskola eta laikotasunaren inguruan aritu zen Paco Delgado hezkuntzan aditua pasa den urrian Denon Eskolan. Bere ustez ordu gutxi eskainiko zaizkio Hiritartasun eta Giza Eskubide Hezkuntza irakasgai berriari eta irakasleak izan behar da ikasleak estimulatzen. Horretaz gain beharrezkoa izango da irakasgai honetan ikasten diren kontzeptuak errealitatean aplikatzea eta ikastetxeak demokratikoki antolatzea. Bere ustez irakasgai honen helburuak benetan betetzea exijitu behar du familiek.

Kronika 3

Kontsumo arduratsua

EGUNA KONTSUMITZEN EMATEN DUGU, ETXEAN ZEIN ESKOLAN. KALERA ATERATZEN GARENEAN EROSKETAK EGITEKO DENDAZ INGURATURIK GAUDE ETA ETXE BARRUAN PUBLIZITATEAK KONTSUMITZERA BULTZATZEN GAITU. PERTSONA HELDUEN KASUAN BEZALA UMEEK ERE UNEORO KONTSUMITZEN DUTE ETA TXARRENA ZERA DA, EKINTZA HAUEN ESANAHIAZ EZ DUTELA PENTSATZEN.

Kontsumitzea ez da erostea soilik, gorde daitekeena erabili eta botatzea, distraineko jatea, lantresnak edo jostailuak gaizki erabiltzea ere bada. Gaur egun haurren parte batek gehiegizko pisu edo gizentasuna dauka. Mugimendu gutxiko bizitzak zerikusi handia dauka baita publizitateak, elikadura motak eta kontsumo ohiturek ere. Eta ohitura hauek txarrera egiten dute Gabonetan.


Haurren elikadura

Umeengan ematen den gehiegizko pisuaren tasak gora egiten jarraitzen du eta hari aurre egiteko kontsumitzeko ohituratan aldaketak txertatu behar dira familietan. Asteaz zehar gure seme-alabek jaten dutenaren gainean arretarik ipintzen al dugu?

Alde batetik eskolako jantokia dugu. Kasu askotan oraindik ez dira dieta orekatuak jarraitzen oraindik; frijituak eta haragia dira nagusi fruta, barazki, zereal eta egoskarien gainetik. Bestalde etxean jaten duguna dago. Batzuetan gure seme-alabek eskolan modu egokian jan dutela uste dugu eta arreta gutxiago ipintzen dugu astegunetako afari eta asteburuetak jatorduetan. Familian hain gutxitan jaten dugu eta...

Baina horrez gain kanpoko eragile batek familia osoaren elikaduran modu garrantzitsuan eragiten du eta gure seme-alabena baldintzatzen du: publizitatea, batez ere telebistatik datorrena. Umeentzat iragartzen diren produktuetatik ia erdiak ez luke izango lekuri dieta osasuntsu batean, koipe edo azukre gehiegi daukate eta prestatuegiak dira: gozokiak, opil industrialak, aurrez prestatutakoak, freskagarriak, snack-ak... dieta orekatu baten aurkako norabidean doaz. Eta itxura osasuntsuagoa duten beste produktu batzuek ez dira egunero kontsumitzeko egokiak: azukredun jogurtak, esnekiak, gailetak, gaztak, eta abar. Hauen kontsumoa noizbehinkakoa izan beharko litzateke.

Aldiz, umeen dietan gomendatutako elikagaiak ia ez dira



publizitatean agertzen: barazkiak, frutak, arraina, arroza, pasta,... eta are gutxiago haurrei zuzendutakoan. Eta zer egiten dugu honi aurre egiteko? Etxean dugun kontsumo eredia gure seme-alabek hartuko dutena izango da.

Zenbait aholku:

- Elikaduraren piramidea jarraitu kontsumitu beharreko elikagai eta kantitateei dagokienez. Irudia sukaldean bistan izan genezake gogorazteko.
- Egunean 3 eta 5 aldi bitartean jan ordu berberean, giro egokian eta telebistatik gabe.
- Aurretiaz prestatutako produktuak, frijituak, opil industrialak, azukredunak edo gaziegiak, freskagarriak edo ontziratutako zukuak saihestu.
- Bertako sasoiko produktuak eskuratu** (frutategian dagoen guztia ez da!).
- Ohitura osasuntsuak adibidearekin erakutsi eta publizitatea saihestu.

Gabonetako kontsumoa: elikadura eta opariak

Egunerokotasunean dieta orekatua jarraitzea zaila bada, are gehiago Gabonetan. Urte bukaera kontsumoaren jai da. Denetarik erosten dugu, janaria soberan, gozo gehiegi, ontziak eta jarraibideak kontuan hartu gabe; hirugarren munduan egindako adonuak horrek inplikatzeko duenarekin; 15 egunetan erabili eta gero zaborrontzira doazen haztegiak hazitako arbola eta landareak; eta batez ere, batzuetan inoren gustukoak ez diren opariak, edo gustuko izanda 15 minutuko atentzioa baino jasotzen ez dutenak, ondoan politago bat dagoelako.

Garai honetan publizitateak gora egiten du, eta hainbat jostailu desfilean hasten dira umeen begien aurretik haien mirespena eraginik. Askotan nahi hauen aurrean erori eta egokitzen jotzen ez dugun zerbait erosten diegu pozik egon daitezten. Baina agian telebistako hainbeste iragarki ikusi eta merkatal guneetako pasabideetatik hainbeste paseatu izan ez balute ez lukete opari baten beharrik izango zorientsu izateko. Azken finean, horrelako itxaropenik gabe, opari xumeago, pentsatuago eta orientatuago batekin zorutzen egon litezke.

Gauza negatibo asko esan daiteke data hauetan dugun gure jarrera kontsumitzailearen aurrean, baina masokistak izan beharrean ildo batzuk bilatuko ditugu familia kontsumitzaile arduratsuak bilatzeko eta gure seme-alabek data hauek bizitzeko modu hori beregana dezaten, elkartzunez, kontzientziaz, estimazioz, ilusioz eta zorionez.

Hautzaroari begirako kontsumo arduratsu baterako gomendioak:

JOSTAILUAK:

- Neba-arreba, lehengusu eta lagunenak birziklatu. Eman jadanik erabiltzen ez direnak beste umeentzat. Objektuen balioa erakutsi, berriak izateagatik ez dira hobeagoak.
- Ez erosi gehiegi paketatutako, pilak erabiltzen dituzten edo sexistak edota belikoak diren jostailuak.
- Begiratu jostailuaren jatorria; zenbat eta hurbilagokoa izan hobeto, eta bidezko merkataritzakoa bada hobeago. Biodegradagarriak eta material naturaletakoak izatea hobe.
- Eta batez ere, gogoratu jostailurik gabe jolas daitekeela. Erakutsi paper eta boligrafo bat baino behar ez duten jolasak, jolastu seme-alabekin.

ETHEARR:

- Izei, gorosti, mihura eta abar modu jasanezinean biltzen dira edo zakarrontzian bukatzeko produzitzen dira.
- Adornuak: begiratu ingurugiroa edo gizakiren bat kaltetu den, eta non produzitu den (zenbat eta urrunago energia gastu handiagoa).
- Ez erosi beharrezkoak ez diren produktuak, deskonektatu erabiltzen ari ez zaren aparailu elektrikoak, etxearen tenperatura epel mantendu. Askotan argizari batek plastikozko eta bonbillaz betetako adornu batek baino berotasun gehiago ematen du.
- Erosi baino lehen pentsatu zenbat hondakin eragiten dituen zera horrek, erabili eta botatzeko produktuak saihestu, ontzi gehiegi daukatenak, saihestu latak.
- Berrerabili papera, txartelak. Jolastu adornuak egiten, birziklatu.
- Hondakinak banandu, kontuan hartu botatzen dugun guztia.

ELIKADURA:

- Erosketak egiteko zerrenda seme-alabekin egin, negoziatu haien iradokizunak eta jan nahi duguna, eta ez aurrean jartzen digutena, lortzen erakutsi.
- Zabor-janaria, aurretiaz prestatutakoa eta ontzi gehiegi daukana saihestu.
- Prestatu jango den janaria eta gorde kontsumituko ez dena.
- Lehenago azaldutako gomendio orokorrak jarraitu.

Jaietako itxaropena jatea, erostea eta opariak jasotzea ez izateko baliagarriak izan daitezke gomendio hauek; janariak, lanak eta jolasak konpartitzearekin ordeztuz.

Kontsumoa eskoletan



2006/2007 ikasturtean Eusko Jaurlaritzak Kontsumoa Eskoletan programa garatu du. Horren emaitzekin argitaratu duen argitalpenean datu esanguratsu batzuk agertzen dira: Euskal Autonomia Erkidegoan 125 eskolak hartu dute parte eta 2456 tailer egin dituzte, batzuk ikasleentzat eta besteak gurasoentzat.

Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzak argitaratutako aldizkarian landutako gaiak eta parte hartu duten eskola batzuk agertzen dira. Gurasoentzako tailerrak hiru atal izan dituzte: Kontsumoa Eskoletan esperientziari buruzko informazio-hitzaldia, "Nola elikatu hautzaroan eta nerabezaroan" lehen tailer praktikoa eta "Ikas dezagun publizitatea aztertzen" bigarren tailer praktikoa.

Denetarikoa kontsumo tailerrak egin dituzte ikasleek: jostailuak, elikadura, publizitatea, hondakinak, telefonia eta internet, ura eta elektrizitatea, umeen segurtasuna...eta beste gai asko landu dituzte.

Karrantzako eskolan, adibidez, jolasen gaia interesatu zaie. Eskolahonek "Jolasa eta jostailuak" tailerrean parte hartu du eta jostailu edo joko bat erosteko dekalogoia sortu dute. Hor konturatu ziren publizitatearen eta etiketaren garrantziaz, eta jostailurik gabe ere jolastu ahal dutela. Sopolako Zipiriñe eskolan, aldiz, elikadura aztertu dute eta pizza bat egiteari ekin diote, gazteen gustukoenak baitira eta etxean egindakoak osasungarriak eta orekatuak izan daitezkeelako. Hor ikasi dituzte elikagaien manipulazioari buruzko argibide batzuk eta pizzaren prozesu osoa ezagutu ere.

Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzaren web gunean beste baliabide batzuk aurkitu ahal ditugu: bigarren hezkuntza eta helduen hezkuntzarako kontsumo gelak; konsumopolis, kontsumori buruzko eskola lehiaketa; eta Kontsumoa Eskoletan programari buruzko informazio gehiago.

www.kontsumo.net

Eskola Mapa Berria

URRIAREN BUKAERAN HEZKUNTZA SAILBURUAK ESKOLA MAPA ALDATZEKO BERE PROPOSAMENA AURKEZTU ZUEN. SAILBURUAREN PROPOSAMEN HORRI EHIGEK EGINDAKO HAINBAT EKARPEN BILDU DITUGU HEMEN.

Ados gaude 1996ko eskola mapa aztertu eta egungo errealitatera eta hurrengo urteetarako aurreikusten dena moldatu beharrekin. Azterketak izaera bikoitza izan behar du erabilgarria eta aplikagarria izan dadin. Alde batetik formazio sarea gizarte aldaketa, aldaketa urbanistiko eta abarretara moldatzeko balio behar du eta bestetik 96ko mapan aurreikusitakoaren garapen egokiari eragin dioten hezkuntza politikak zuzentzeko izaera izan behar du. Zentzu honetan ikasleria sareen artean banatzerakoan eman den aldaketak Eskola Paktuan adostutakoa errespetatzen ez duela adierazi nahi du EHIGEK.

Eskaintza hobetzeko egungo Eskola Maparen eraldaketan oso garrantzitsua da konponbide estrategiko oso eta etorkizunekoetan aurrera pausuak ematea, batez ere Irakaskuntza Publikoan. Helburutzat konponbide partzialak soilik dauzkaten Maparen aldaketek, Lanbide Heziketa, 0-3 edo legeriaren aldatzea, beste arlo batzuetan eragingo dute eta ondorioz aldaketa proposamenak osotasunezko izaerarekin aztertuak eta planteatuak izan beharko dira, inplikaturako eragile guztiekin eta eskaintza publikoa bere osotasunean hobetzeko asmo bakarrarekin. Haurreskolen arau markoa definitzerakoan ikastetxe publikoetan 0-3a zabaltzea kontuan hartu ez izanak, gaur egungo egoeratik datozen arau eta antolaketa aspektuetarako konponbide espezifikoak bilatzera bultzatzen gaitu. Premiazkoa da gai honetan Eskola Txikietarako antzinatek eskatutako berezko statusa. Horrexegatik Mapa berriaren irizpideak ezartzeko orduan haien artean adostutakoa errespetatzea eskatzen dugu (informazioa www.bizkaikoeskolatxikiak.org web orrian)

Gure ikuspuntutik, Hezkuntza Sailak, ikastetxe publikoen titularra den heinean, KALITATEZKO IRAKASKUNTZA PUBLIKO, LAIKO ETA OSOA bultzatu beharko luke, aukera hori barruti bakoitzean bermatuz. Horrela, eta ez beste modu batera, bermatuko da aukera berdintasuna. Eskola publikorik gabeko herririk ez dagoela ziurtatu behar du Mapak.

Etxearekiko hurbiltasunaren lehentasunezko irizpidea betetzeko, eskariak betetzeko nahiko eskaintza eman behar da.

Irakaskuntza Publikoko hezkuntzako eragile guztien partehartzeak eskaintza publiko osoa eta kalitatezkoa bermatzen du. Partehartze eredu honek soilik lagunduko du eskaintza publiko erakargarri, lehiakor eta adostua konfiguratzeko.

Administrazioak ere bere gain hartu behar du bere erantzukizun parte eragile publikoen partehartzeak sortutako proiektuetan, hauetarako garapen egokia ziurtatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak ezarriz.

Bestalde, urteko planifikazioaz gain leku behar eta eskualdeko fluxuen urtetarako planifikazioa guztiz beharrezkotzat jotzen dugu (0-18), matrikula berrien aurreikuspena, urteko jaiotze tasak, garapen urbanistikoak eta abar kontuan hartuz Administrazioak ikastetxe guztien erantzukizun bateratua bermatu beharko du haien titularitatea kontuan hartu gabe.

CPI/IPI publiko erreferentziazko eredu tipologiaren balorazio positiboa egiten dugu, baina gure ustez hori garatzeko guztiz beharrezkoa izango da Administrazioak benetako bultzada ematea, duen potentzialtasun osoa gara dadin. Ikastetxe publikoek foroa ala batzorde ofiziala izatea bermatu behar da Eskola Maparen aldaketak adostu ahal izateko. Haurreskolak kolektiboa Hezkuntza Sailaren menpe egotera pasatzea proposatzen dugu dagokien ibilbidean txertatuz.

Marko berria aplikatzen hasten den momentutik, beharrezkoa den PL2a duen irakasleria jaso beharko dute euskaldundutako irakasle gutxi daukaten ikastetxeek, eredu berriak hala eskatzen duen neurrian. Gure ustez Haur Hezkuntzan PL2a duen irakasleria egokitzea egi bihurtu behar da 2008-2009 ikasturterako.

INFO +:

www.ehige.org
www.bizkaikoeskolatxikiak.org

Samaniego eskola ekologikoa

www.samaniego-tolosa.com

Esperientzia I



Urte bitan eraikitzen egon ondoren joan den urrian Samaniego haur eskolaren eraikin jasangarri eta bioklimatikoa inauguratu zen. Proiektuan hainbat irizpide berezi erabili da, ingurunearekiko errespetua erakusten dutenak, eta emaitza energia eta uraren kontsumoan auto-hornitzen den ikastetxea izan da, Euskal Autonomia Erkidegoan adibide bakarra eta besteentzat eredu.

Talde lana eragin duen proiektua izan da eta parte guztiek egon nahi izan dute horrelako inaugurazio berezi batean: Udala, Eusko Jaurlaritza, arkitektoa eta Samaniegoko eskola komunitate osoa.

Hasiera batean atentzioa gehien deitzen duena ikastetxearen estalkia da. Teilatua laua da eta euriaren urarekin estalirik dago. Horrek eraikina isolatzen du eta landare eta arrainak egotea baimentzen du ura geldirik gera ez dadin. Soberan gelditzen den ura 168.000 litrorako lekua duen biltegi batean gordetzen da eta ondoren komunetarako eta baratzeak ureztatzeko erabiliko da.

Eguzki panel termikoak

Eskolaren kanpoaldean aerosorgailu bat kokatu da, haren hegala haizearekin mugitzen dira eta eskolarentzako korrante elektrikoa ematen du. Energia gordetzeko plaka fotovoltaiakoak erabiltzen dira ere.

Arkitektoak birziklatzeari garrantzi handia eman dio. Kanpoaldean baratzea dago, baita itzala eman eta haizea geldiarazten duen landaretza ere. Sortzen diren hondakin organikoekin, sukaldekoak barne, compost-a sortuko da, lurzoruaren humusaren antzerako konposatu bat. Eskolaren barruan tenperatura egokia mantentzeko eguzki panel termikoak ezarri dira, barrutik ur mugimendua duten negutegi txikien bidez eguzkiaren beroa gordetzen dutenak ur hori berotuz. Bestalde, hegoaldeko fatxadan beirategia eta Trombe harresia daude, negutegi legez ere funtzionatzen duena, barrutik mugitzen den airea berotuz. Beste fatxadak isolagarriak dira eta ez diote beroari ihes egiten uzten.

Horrez gain, eraikinaren barrualdean materialik gehienak birziklagarriak dira eta ez toxikoak. Egurrek ondo gestionatutako basoetatik datozenaren ziurtagiria

dauzkate, eta pinturak ur-pinturak dira. Berogailua gas naturalekoa da eta tutuak irradiatzen duen zoru azpitik doaz.

Hauek eta bestelako beste neurri batzuek ingurunearekiko kontzientziarioaren eredu den eraikina bihurtu dute, ingurunearekiko ez errespetuzkoa den energiaren %50 aurrezteko ahalmena duena.



Bi urtez eraikuntza lanak egiten aritu ondoren, aurreko urrian inauguratu zuten Samaniegoko haur eskolako eraikin iraunkor eta bioklimatikoa. Proiektu horretan, ingurumenaren errespetuari dagozkion irizpide berezi batzuk hartu dira kontuan, eta, horri esker, eraikinak kontsumitzen dituen energia eta ura bertan ekoizten dira; alderdi horretatik, ezaugarri horiek dituen bakarra da, eta eredugarria, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Begiratu hutsean, deigarrienetakoa ikastetxearen teilatua da. Teilatu laua du, eta euri ura biltzen da gainean; horrek eraikina isolatzen du, eta, landareak eta arrainak jarrita, ur hori urmael dadin eragozten da. Sobera dagoen ura, beriz, 168.000 litroko edukiera duen biltegi batean gordetzen da, gero komunetan eta baratzeak ureztatzeko erabiltzeko.

Esperientzia 2

Gipuzkoa, Ekintza Magistralaren sariketan nabarmen

GIPUZKOAKO BI IKASTETXE AUKERATU DITUZTE AURTENGO EKINTZA MAGISTRALAREN SARIKETAN: BEASAINGO MURUMENDI ETA DONOSTIAKO INTXAURRONDO. PERIEDO HERRIKO (KANTABRIA) ANTONIO MUÑOZ Y GÓMEZ DE CASAR ESKOLA PUBLIKOAK JASO DU SARI NAGUSIA.

Urriaren 1ean, Zartzuelako Jauregian, Ekintza Magistralaren 2007ko saria banatu zuten; FAD fundazioak (Drogamendekotasunaren kontrako Laguntzarako Fundazioa), UNESCOrekiko (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) Lankidetzarako Espainiako Batzordeak eta BBVAk antolatzen dute sariketa. Antonio Muñoz y Gómez de Casar de Periedo (Cantabria) ikastetxe publikoak aurkeztutako 'El bosque encantado' proiektua ('Baso sorgindua') aukeratu zuten Ekintza Magistralaren 2007ko eskola proiektuen saileko irabazle.

Baina epaimahaiak Gipuzkoako bi ikastetxe publiko aukeratu zituen finalista:

•LEHENENGO FINALISTA

Izenburua: Experimentar estrategias de transformación de conflictos y de convivencia en el aula y otros espacios
Ikastetxea: MURUMENDI IKASTETXE PUBLIKOA (Beasain)

•HIRUGARREN FINALISTA

Izenburua: Creciendo juntos (Elkarrekin hezten) Trabajo en valores
Ikastetxea: INTXAURRONDO IKASTOLA (Donostia)

Lehenengo eta hirugarren finalista suertatu dira Beasaingo Murumendi eta Donostiako Intxaurrondo ikastetxeak

Murumendi Ikastetxeak aurkeztutako lanaren izenburua "Experimentar estrategias de transformación de conflictos y de convivencia en el aula y otros espacios sustentados en el diálogo y el respeto mutuo dentro de la óptica de una escuela inclusiva" (Ikasgelan eta elkarriketan eta elkarrekiko errespetuan oinarrituriko beste espazio batzuetan gatazkak eraldatzeko eta bizikidetz



bideratzeko estrategiak saiatzea, eskola inklusiboaren bidetik) da. Murumendin orain dela zenbait urte hasi ziren bizikidetzara, gelan elkarriketaren bidez gatazkak konpontzera eta eskola komunitateko kide guztien artean enpatia sustatzera begirako ekimenak lantzen. Proiektua irakasleen klaustroko kide guztien artean osatu dute. Aurreko ikasturteko klaustroko kideen artean, zehatz esateko, proiektua aurtengo maiatzean aurkeztu baitzuten.

Murumendi ikastetxean bizikidetzaren sustatzeko egiten duten lanari lehenago ere erreparatu izan diote erakundeek, ordea. 2005ean, hain zuzen ere, beren esperientzia Donostiako Miramar jauregian aurkezteko gonbita egin zieten Murumendikoei, berritze pedagogikoko ikastaro batean. Urte horretan bertan, bakearen aldeko jardunaldi batzuetan parte hartzeko deia jaso zuten, eta beren eredia aurkeztu zuten. 2006ko abuztuan, azkenik, Euskal Herriko Unibertsitateak tartea egin zien bere ikastaroetako batean.





Donostiako Intxaurren Ikastolak aurkeztutako proiektuak “Creciendo juntos (Elkarrekin hezten) Trabajo en valores” du izena. Proiektu horrek curriculumeko zenbait esparru kontuan hartzen ditu, beharrezkoak arabera: tutoretza, ingurunearen ezagueraren arloa, Euskara, Gaztelania, Ingelesa eta zeharlerroak.

Proiektu orokorra da, eta berrogeita hiru irakasle landu dute. Hainbat alderdi ditu aztergai: balioetan oinarrituriko hezkuntza, belaunaldi arteko harremanak, generoaren lanketa, kulturartekotasuna, gizarte trebetasunak, gatazkak konpontzea... Bi atal ongi bereizi ditu, lehena El Salvadorreko eskolekin landua, ikastetxean solidaritatea sustatzeko xedea



duena, eta, bigarrena, Mundilab laborategiaren eskutik abian jarria.

Urte asko daramatza Donostiako ikastetxe honek El Salvadorrekin lanean. Bisita bati esker hasi zen elkarlan hura eta ordutik hainbat gauza egin dituzte elkarrekin.

Bestalde, Mundilab elkartean laborategia hezkuntza prestaketa eta ikerketa bultzatzen dituen Hegoa institutuaren egitasmo bat da. Mundua hezkuntza ekimenen bultzatzaile bezala ikusten duen laborategi-gela bat da hau. Ikasketa enpirikoari esker, neska-mutilen jakinmina berpizten du eta errealitatearen analisi konplexuak ahalbidetzen ditu.

Murumendi ikastetxearen “Ikasgelan eta elkarriketan eta elkarrekiko errespetuan oinarrituriko beste espazio batzuetan gatazkak eraldatzeko eta bizikidetzan bideratzeko estrategiak saiatzeko, eskola inklusiboaren bidetik” egitasmoa eta Intxaurren ikastolaren “Elkarrekin hezten” proiektuak saritu dituzte.

Beasaingo ikastetxeak urteak daramatza bizikidetzan lantzen eta klaustroko kide guztien artean osatu dute egitasmoa. Donostiako Intxaurren ikastetxeak ere urteak daramatza El Salvadorrekin lanean. Bestalde, Hegoa institutuaren Mundilab elkartean laborategian ere aritu dira.

Esperientzia 3

Drogazaletasuna prebenitzeko esperientzia Sestaon



BIGEREKIN ELKARLANEAN ARITZEN DIREN PSIKOLOGO BIK DROGAZALETASUNA PREBENITZECO PROGRAMA BAT ABIATU DUTE SESTAOKO HAINBAT IKASTETXETAN. JORGE MADARIAGAK ESPERIENTZIA HORREN NONDIK NORAKOAK AZALTZEN DIZKIGU ARTIKULU HONETAN

Askotan, drogen kontsumoaz hitz egiten denean, eta batez ere drogen kontsumo problematikoaz, ohikoa da entzutea familiak, gurasoak, azkenak direla enteratzen.

Egia esan ez da beti erreza, nahiz eta gaur egun, prebentzioan ari garenontzat, drogen kontsumoarekiko ahulezia egoera edo faktoreen existentzia antzematea baimentzen duen hainbat adierazle badagoen. Hauek umearen hazkuntza pertsonal eta sozialaren inguruan gauden hezkuntzako eragileoi arreta eta kontu handia exijitzen digute hala nola diziplina-anitza den interbentzioa hitzaren zentzurik zabalenean.

Hemendik zera azpimarratu nahi dugu, garrantzitsuena erruduna zein den identifikatzea planteamenduaren aurrean, arazoak konpontzeko analisia eta konponbideak bilatzea izan behar dela bidea.

Ikasleek pertsona gisa eta gizartearen parte gisa haien formazio eta hazkuntzan eragiten duten hainbat faktoreekin bizi dira (familia, eskola, asti eta aisialdi taldeak, osasun zentroak, administrazioa, eta abar), eta beraz, ibilbide horretan sor litezkeen arazoen prebentzio eta konponbideetan nolabaiteko erantzukizuna konpartitzen dute.

Gure ustez azpi-sistema bi hauen arteko lotura puntu bat egotea beharrezkoa da eta horrexegatik konpartitutako erantzukizunean interbenitu beharko da, eta horrekin batera eskola eta familiei baliabideak eman ikasle eta seme-alaben jarrera arazoak antzeman eta konpontzeko, komunitateak eskura dauzkan baliabide eta zerbitzuekiko eskuragarritasuna ere erraztuz.

Hauxe dugu ikasturte honetan zehar gure lurraldeko hainbat ikastetxetan, Eusko Jaurlaritzako Drogamenpekotasun Zuzendaritzaren laguntzarekin, burutuko dugun esperientziaren helburua: derrigorrezko eskola adinean egonik eskola porrot maila altua erakusten duten umeen familiei, edota ezaugarri pertsonal edo harremanezkoak direla eta drogen kontsumo problematikoarekiko sentiberatasun faktorea erakusten

dutenei, laguntza zerbitzu-baliabidea eskaintzea,. Garaiz egindako interbentzioa eta erantzukizuna konpartitzea, zalantzarik gabe, apustu posibilibista dugu, eta gatazkatsuak edo konplexuak diren egoerei aurre egiteko garaian segurtasun handiagoa izatea ziurtatuko diegu familiei.

Zehazki ikasturte honetan Sestaoko udalerrriaren hainbat ikastetxetan ondoko zutabeetan oinarrituko den proiektua abiatuko dugu: talde zein banakako izaera izango duten dinamikak ezarri familiekin (aitak edota amak) zein drogekin harreman problematikoak izatearekiko ahulezia faktoreak azaltzen dituzten adingabekoekin.

Hain zuzen ere, arrisku lau faktoreri erreparatuko diegu, pertsona hauen gizarteratzean eragiten dutenak, eta zenbait portaeren (droga kontsumoa adibidez) problematika haztea ekar dezaketenak:

- **Sustantzien kontsumo hasiberriak.** Frogatuta dago drogen kontsumoaren hasiera goiztiarra arrisku faktore garrantzitsua dela.

- **Portaera oso oldarkorrek,** gizarteratzea zailago bihur dezaketenak eta era berean bestelako ekintza problematikoagoak erraztu.

- **Gehiegizko gizarte uzkurtasuna,** ziurtasun eta konfiantza eza sentimenduekin lot daitekeena eta pertsonen arteko harremanak ezartzeko zailtasuna handitzen duena.

- **Eskola zailtasunak,** umeen bizitzan problematika orokorragoen adierazle bezala kasu batzuetan edo lasterragotzaile bezala beste batzuetan.

Proposamenaren azken helburua zailtasun hauek irakasleria, familia eta ikasleria berarekin batera lantzea da, haien intzidentzia murriztu eta konponbiderantz orientatuz.

Esperientzia 4

Gorren integrazioa Zubileta eskolan



GORREN INTEGRAZIORAKO PROGRAMAK EZARRITA DAUDE EUSKAL HERRIKO ESKOLA BATZUETAN. BIZKAIAREN KASUAN GETXOKO ZUBILETA, DURANGOKO LANDAKO ETA BILBOKO BASURTO ESKOLETAN, HAIN ZUZEN ERE. ESKOLA HAUETAN BALIABIDE BATZUK EGOKITU EGIN DIRA HAUR HAUEN EGOERA HOBETZEKO. ZUBILETA ESKOLAN ZE NOLAKO NEURRIAK JARRI DITUZTEN ETA EGITEN DITUZTEN JARDUERAK KONTATU DIZKIGUTE.

Hezkuntza Sailak bultzatua, entzuteko zailtasunak dituzten umeekin lan egiten ari dira egunero Zubileta eskolan, eta Euskal Gorrak eta Ulertuz elkarteekin batera jarduera batzuk antolatu dituzte.

Eskola honetan bi logopeda eta keinu hizkuntzarako bi itzultzaile aritzen dira egunero haurrei behar duten laguntza ematen. Badira zortzi urte egitasmo honekin hasi zirela eta egun bederatzita haur gor dituzte. Hasieran aldaketa batzuk egin zituzten: keinu hizkuntzan adituak eta logopedak sartu ziren, gorren elkarteekin bildu ziren, irakasleak prestatu egin ziren, eta abar. Egun, hiru hilean behin gorrak dauzkaten beste eskolekin biltzen dira eta proposamen, zailtasun eta materialen elkartrukea egiten dute.

Bi eredu

Ume hauek A edo D ereduan egin dezakete matrikula eta gainera beste bi ereduren artean aukera dezakete: elebiduna (keinuhizkuntza eta ahoskoa) edo elebakarra (ikasteko ahosko hizkuntza soilik erabiltzen duena). Bi kasuetan gela arruntetan integratuak daude ikasleak eta besteen liburu berdina erabiltzen dituzte.

Eskolan dauden bi logopedak egunero haurrekin aparteko saioak egiten dituzte, ahoskera hobetzeko (horretarako bi tresna erabiltzen dituzte, SUBAGen tresna eta FM irratia, Eusko Jaurlaritzak jarrita) eta hiztegia lantzeko.

Horrez gain, bi irakasle klaseetan sartzen dira keinuhizkuntza lantzeko. Tutoreak esaten duena keinuhizkuntzara itzultzen diote ikasle gorrari, baita azalpenak eman ere zerbait ulertu ez duenean. Aparteko saioak ere badauzkate, keinuhizkuntza ondo ikasteko. Egunerokotasunak gela berean dauden beste haurrek keinuhizkuntza ikasten laguntzen du, txikitatik ikusten duten hizkuntza baita. Honek haur gorren integrazioa errazten du, eta patioan ere guztiz integratuta daudela adierazi digute irakasleek.

Aldaketa batzuk ere egin dituzte eskolako paisaian. Hala, karteltxoak keinuhizkuntzan ere agertzen dira, bai

informatzaileak bai apaintzeko erabiltzen direnak ere.

Bestalde, eskolaz kanpoko ekintzen artean edozein ikasle keinuhizkuntza ikasteko aukera dauka, eta horrez gain tailer batzuk antolatzen dira urtero. Pasa den ikasturteko VI. Ikasle Gorren Topaketa Zubiletan ospatu zen; han bildu ziren Bizkaiko ikasle gorrek dantzak, mimika, txokolatada, magoa eta tai-chi jarduerekin gozatu zuten.

Urteak pasa ahala, lehenengo hezkuntza amaitu era bigarren hezkuntzara pasatzen dira ikasle gorrak.

Beste haurrek keinuhizkuntza ikasteak ume gorrak integratzen laguntzen du.



Esperientzia 5

Emoziozko Adimena familian



GORDEXOLAKO IGEA EMOZIOZKO ADIMENA GAI ERAKARGARRIA LANTZEN HASI DA. IKASTETXEKO AITA BATEK HORREN INGURUKO HAUSNARKETA INTERESGARRIA EGIN DIGU.

Pertsona askorentzat egungo haurren arazoak azken urteotan gizarte ereduetan emandako aldaketa konplexuengatik, egungo familia konposaketa anitzak barne, azal daitezke. Edota telebistaren eraginagatik, autoritate figura legez eskolekiko ematen den errespetu faltagatik eta gurasoek seme-alabekin ematen duten denbora eskasagatik.

Gizarte aldaketak logikoki saihestezinak direnez, ondoko galdera planteatzen da: zer egin dezakegu gurasook ume zorionsu, osasuntsu eta arrakastatsuak hazteko?

Erantzuna ez da sinplea ez erraza, atentziorik eman gabe eta gure seme-alaben indibidualtasunak nolakoak diren jakin gabe egin beharreko gauzen errezeta bat ezta ere. Bakoitzak dituen ahulezia eta indarrak identifikatzean datza. Gainera, guztiz garrantzitsua da familia giroak eskolako errendimenduan eskolako giroak bezain beste eragiten duela ulertzea. Seme-alaben Emoziozko Adimena piztu nahi badugu, ongi egingo dugu emozioen munduan arrakastaz nabigatu ahal izateko orientatuak eta gidatuak izan beharko diren bidaia baterako prestatzen bagara.

Gure seme-alaben heziketa emozionala guraso legez garatu behar dugun zereginetako bat da, elikaduraz zein segurtasun fisikoaz arduratzen garen bezala, hartara heltzeko bidea hain zuzena eta agerikoa ez bada ere, ardura gurea da.



Gurasook gure seme-alaben emozioen garapenari ekin diezaiozun argudiorik garrantzitsuenak, haien hazkuntzan, fisikoa zein gizatiarrean, oinarritzakoak gara. Gainera haienzako urtean hamabi hilabetez funtzionatu eta udan ixten ez duen euskarria gara.

Emoziozko heziketa inteligenteak teknika espezifikoak, sinpleak eta garrantzitsuak erabiltzen ditu, familiako harremanetan eta seme-alaben hezkuntzan hobetzen lagun dezaketenak. Emoziozko Adimena kontzeptua gurasoek haien emozioekin eta haien seme-alabekin modu inteligentean, eraikitzailean, positiboan eta sortzailean lan egitean datza. Eguneroko hobekuntza txikiak bilatzen dira modu praktikoa eta errazean, ondoren denboran mantentzen direnak, familia osotzen duten guztien garapen pertsonala sendotzen duten ohiturak lagunduz. Ez dezagun ahaztu umeek ingurune positibo, hezitzaile eta aukeratan aberatsa den batean hazten baimenduko duten gaitasunak behar dituztela.

Emoziozko hazkuntza intelijentea ez da moda pasakorra edo teknika multzo bat; seme-alabekin erlazionatu eta familiako elkarbizitza antolatze modu bat da. Umeek haien sentimenduak ordenatzen, tentsioen aurrean inpultsorik jarraitu gabe erantzuten eta besteekin modu eraginkorrean erlazionatzen ikasten badute errazagoa izango da orduan gizarte egoeren aurrean modu erreflexiboan eta arduratsuan erantzutea. Jarrera hauek irakats eta ikas daitezke beste edozein bezala.

Emoziozko heziketa intelijentea, guztien gainera, errealista eta prozesu bat da, ez formula bat. Era berean oinarritzakoa da azken helburua umeek egoerak gainditzeko eta bizitza prozesuak ekarriko dizkien emoziozko egoeretarako erantzuna sendotzeko ahalmenak garatzea dela ulertzea.

José Morgado Nisa
morgadonisa@hotmail.com

<http://morgadonisa.blogspot.com>

Mintzalaguna programa Gasteizen

DENON ESKOLAKO EUSKARAREN NORMALIZAZIO BATZORDEAREN KEZKA NAGUSIETAKO BAT HAREN SORRERATIK ARABAN EUSKARAZ ARITZEKO GUNEEN FALTA IZAN DA. ETA BESTEREN ARTEAN HELBURU HORREKIN, EUSKARAZ ARITZEKO ESPAZIOAK SUSTATZEA HAIN ZUZEN ERE, HAINBAT URTE DARAMATZA BATZORDEAK BAI SEME-ALABENTZAKO ZEIN FAMILIENTZAKO OROKORREAN ERA GUZTIETAKO EKINTZAK ANTOLATZEN.

Asmoa Araban oso ohikoa den euskara ikastetxearen espazio fisiko eta eduki eta betebeharrekin lotzeko inertziarekin apurtzea da, eta horretarako ikastetxeetako irakasleekin koordinazioan hainbat ekintza burutzen dira aisialdirako une eta guneetan. Ekintza hauekin eskolatik kanpo euskaraz aritu, gozatu eta bizitzea posible dela erakutsi nahi da eta kasu askotan gurasoekin batera egitekoak planteatzen dira azken hauei ere euskaraz aritzeko aukera eskainiz. Halere egia da gaztetxo eta gurasoentzat gutxi izaten direla ematen diren era honetako aukerak.

Geu Gasteiz elkarteak eta Udalak Mintzalaguna programa jarriko dute abian orain Gasteizen. Mintzalaguna programa euskara maila ertain edo altua duten herritarrentzat euskaraz praktikatzeko eta, ahal dela, euskaraz bizi ahal izateko hainbat egoera sortzen eta hainbat jarduera eta ekitaldi antolatzen dituen programa da. Programak bat egiten du bete betean Denon Eskolako Euskararen Normalizazio Batzordeak duen helburu horrekin: euskaraz hitz egiteko aukerarik ez dutenei aukera hori ematea. Eta gainera zuzenean aukera gutxiago duen publiko horri zuzentzen zaio, gaztetxoak eta helduak. Hori dela eta Denon Eskola ere Programaren sustatzaileetako bat izango da eta haren garapenean parte hartuko du baliabide guztiak eskainiz.

Programa honek beraz euskara erabiltzeko espazioak eta solaskideak eskaintzen ditu. Bi motatako parte hartzaileak batzen dira: euskaraz hitz egiteko aukera gutxi daukatenak (euskaltegietako goi urratsetan ikasten ari direnak, euskaltegi eta ikastetxeko ikasle ohiak,...) eta euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak. Hala ere, denak euskaraz komunikatzeko gai diren pertsonak izango dira. Izena emandakoan taldeak osotuko dira zaletasunak, adinak eta ordutegiak kontuan izanda, beti ere euskara maila ezagutzeko frogatxo bat egin ondoren.

Taldeetan beti egongo da euskaraz hitz egiteko ohitura duen baten bat eta gehien jota bost kidek osotutakoak izango dira, guztiok hitz egiteko eta harreman afektiboak modu erosoan lantzeko bide ematen baitute mota horretako taldeek. Taldeek autonomia osoa izango dute haiek nahi bezala antolatzeko nahiz eta behar izanez gero aholkularitza izateko aukera egongo den. Gutxienez astean

behin bilduko dira. Horretaz gain, urtean zehar hainbat ekintza osagarri antolatuko dira.

Denon Eskolarentzat oso ekimen positiboa eta beharrezkoa da eta ziur gaude aplikatu den beste tokietan bezala oso arrakastatsua izango dela.



Esperientzia 7

Hezkuntzari buruzko informazio bulegoa

DENON ESKOLA ARABAKO GURASO ELKARTEEN FEDERAZIOAK, VITORIA-GASTEIZKO UDALAREN LAGUNTZAREKIN, HEZKUNTZAKO GAIEN INGURUAN INFORMAZIO ETA ORIENTAZIORAKO BULEGOA ABIAN JARRI ZUEN DUELA ZORTZI URTE.

Bulegoa Vitoria-Gasteizko familia guztientzat zuzendurik dago, ikastetxe publikoetakoak zein pribatuetakoak, eta hezkuntza etapa guztietarako.

Zortzi urtetan zehar jardun ondoren erreferentzia gune bilakatu da, eta bertara familiak ez ezik irakasle eta bestelako eragileak, hezkuntzakoak zein gizarte mailakoak, ere hurbiltzen dira.

Informazio eta Orientazio bulego honen oinarriko lan ildoetako bat hezkuntza arloko eskaerak bideratzearena da baina era berean hezkuntza sistemaren problematika ezberdinen behatoki ere bihurtu da. Hemen, kale mailan, familiek, ikasleek eta bestelako eragile hezitzaileek jakinarazten dizkiguten benetako beharrak hautematen dira.

Horrela, Haur Hezkuntzarako leku falta, zonifikazio arazoak eta kalean dauden bestelakoak tratatzen dira jendeak ez baitaki nora jo behar duen.

Gainera, bulegoaren arretarako ordutegia zabala da, goizez zein arratsalde zabalitzen da ostiral arratsaldeak kenduta.

Bulegoaren beste atal garrantzitsu bat ikasleria atzerriararentzat bereziki eskainitako zerbitzua da. Duela bi urte abiatu zen eta etorkinen gaiarekin lanean ari diren bestelako profesional eta erakundeekin harremana finkatzeko ere balio izan du.

Informazio eta Orientaziorako Bulego honek hainbat txosten burutu du. Honako hauek ditugu azkenak:

- Haur eta Lehen Hezkuntzarekiko Satisfazioaren Ikerketa Kualitatiboa.
- Haur Etorkinak Vitoria-Gasteizko eskolatan (EHU)
- Luis Elejalde LHI-ko Eskola Elkartearen satisfazio mailaren ikerketa.

Servicio de Atención al Alumnado Extranjero:
Centros, Modelos, Estudios, Becas, Asociaciones de Madres y Padres...

OFICINA DE INFORMACIÓN SOBRE EDUCACIÓN
HEZKUNTZARI BURUZKO INFORMAZIO BULEGOA

Florida 62-A
945 27 31 40
denon-informacion@ehige.org
www.denoneskola.org

Foreign Student Information Service:
Schools, Models, Aid, Grants, Parent associations...

pindar

JAVIKI proiektua

JAVIKI PROIEKTUA AZALTZEKO ZERA ESANGO GENUKE: **VITORIA-GASTEIZKO ALDE ZAHARRA** BEZALAKO KULTUR ANITZA DEN TESTUINGURU BATEAN IZAERA GUZTIZ HEZITZAILEA DUTEN ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA LUDIKO ZEIN KIROLEZKOAK ANTOLATU ETA BURUTZEA DELA, BEREZIKI LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLERIARI ZUZENDURIK.

Programa hau 2003-2004 ikasturtean jarri zen abian Ramon Bajo ikastetxean bost ikaslerekin soilik, garai hartan ikastetxe honek eskolaz kanpoko kirol ekintzak eskaintzeko zuen gabezia zela eta. Intentzio horrekin, bi urte geroago Santa Maria eskolara ere zabaldu zen. Gaur egun ikastetxe bietako instalazioetan eta Aldabe eta Landatxo gizarte etxeetan garatzen da eta 90 ume inguruk parte hartzen dute.

Proiektua asmo handikoa, dinamikoa eta ikasleen etorrera etengabea dela eta suertatzen diren baldintza berrietara moldagarria da. Proiektuaren dimentsioak hasi zenetik hazten joan dira, bai parte hartzaileen kopuruan, sortutako talde kopuruan eta baita burutu eta eskainitako ekintzetan. Horrekin batera giza baliabideek, ekonomikoek, materialek eta espazioek ere gora egin dute.

Nahiz eta proiektuan Ramon Bajo eta Santa Maria ikastetxeetako ikasleek parte hartzen duten, antolatzen diren ekintzetan parte hartu nahi duten Gasteizko Alde Zaharreko bestelako umeentzat ere zabalik dago. Helburua bikoitza da: alde batetik kirola eta haren baloreen bidez baztertze soziala jasateko arriskuan dauden umeen normalizazioan lagundu eta beste alde batetik gizarte errealitate plural eta kultur anitza den Alde Zaharra bezalako testuinguru batean elkarbizitzarako gaitasun eta estrategia pertsonalak landu guztiekin - populazio etorkinarekin zein bertakoekin.

Denbora honetan zehar bildutako ezagutza eta esperientzia egungo proposamenaren oinarriak dira. Zentzu horretan proiektuaren oinarri garrantzitsuenetako bat haren izaera etengabea edo jarraitzailea da, aurreko ikasturteetan ekindakoari jarraituz eta hura garatuz etorkizunean jarraipena izan dezan. Asmoa ikastetxe gehiagotara zabaldu eta baliabide gehiago lortzea da.

Izaera hezitzailea duen eskola kirol ekintza eredu honek (kirol klub handietatik burutzen ari diren tradiziozko eredu konpetitibo eta elitistetatik urrun) haren ahalmen integratzaileaz gain umeen behar hezitzaile eta ludikoei erantzuna emateko ahalmena ere erakutsi du, eta ez hori bakarrik, haien behar afektibo-emozional eta hiriko bestelako talde sozialekin komunikatzeko beharrei ere erantzuteko ahalmena erakutsi du. Era berean, jatorri ezberdineko umeen artean jolasean eratzen diren harremanen bidez kohesioa lortzeko aukera eskaintzen duela agerian gelditu da.

"El Campillo" polikiroldegia (Alde Zaharra)



Esperientzia 9

Eskola Txikiak ere martxan



**ESKOLA TXIKIEK DAUZKATEN BEREZITASUNAK ETA LEGEA APLIKATZEKO ZAILTASUNAK GAINDITZEKO BATZORDEA MARTXAN DAGO. HEZKUNTZA SAILAK EGIN DUEN
ESKOLA MAPA EGITEKO PROPOSAMENAREN IRIZPIDE BATEKIN BEREZIKI EZ DAUDE ADOS.**

Hezkuntza Saileko Eskola Txikien Batzordea biltzen hasi zen berriz orain dela urte bete. Batzorde honetan administrazioa, gurasoak eta irakasleak biltzen gara eta bere burua Ikastetxe Zuzendaria da. Eskola Txikiak bereziak dira eta araudi orokorra aplikatzeko orduan arazoak izaten dira. Bestalde, adin desberdinetako umeak gela berean egoteak lan egiteko modu bereziak erabiltzera bultzatzen gaitu, irakasle askorentzat ezezagunak diren lan egiteko moduak. Hori dela eta, Batzordeak bi lehentasun jarri zituen bere hasierako bileran. Alde batetik, Eskola Txikiak definitzea zeintzuk diren jakiteko eta beraien egoeraren diagnosa egiteko, etorkizunean izango duten bilakaera aurreikusteko asmoz; eta bestetik, Eskola Txikietako irakasleei formazio programa berezia eskaintzea.

“Eskola Txikietako irakasleentzako formazio bereziaren beharra ikusi da geletako adin aniztasunari erantzuteko”

Eskola Txikia definitzeko ezaugarriak bereziena kontutan hartzea proposatu dugu; hau da, adin desberdinetako umeak gela berean elkartu beharra. Honen ondorioz, Eskola Txikiak gela gehienetan adin nahastuak dituen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako eskolak dira, ume eta gela kopuruak hala behartzen dutelako. Proposamen hau Eskola Txikien Batzordean eztabaidatu aurretik, Hezkuntza Sailak Eskola Mapa egiteko irizpideei buruzko proposamena aurkeztu die zenbait hezkuntza eragileri. Horretan, ‘Ikastetxe Osatugabeak’ izendatzen gaituzte, gure ustez Eskola Txikiak handiak bezain osatuak direnean eta ‘Ikastetxe Osatugabeak’ beste tipologia bateko ikastetxeak izendatzeko erabili behar denean.

Aipatu den moduan, Eskola Txikietako irakasleentzako formazio bereziaren beharra ikusi da. Nola erantzun adin aniztasunari irakasleen hasierako formazioan ez bada lantzen edota material curricularrak berezitasun hori

kontutan hartzen ez badu? Arazo honen aurrean irakasle gehienek adin bereko talde txikiagoak egiten dituzte, eskolako giza baliabideak horretan erabiliz beste lan batzuen kalterako. Beraz, irakasleak gela berean adin desberdinetako umeekin lan egiteko metodologietan trebatzea da helburua.

Horretarako, Eskola Txikietako irakasleak Elena Laiz aholkulariarekin bilduko dira etapan arabera antolatuta, formazio orokorrerako. Gainera eskola bakoitzean koordinatzaile bat egongo da lana dinamizatzen, Elena Laizekin gelako lana prestatu eta jarraipena egiteko, eta eskolan bertan zikloen arteko egokitzapenak burutzeko. Esperientzia hau Gipuzkoan hasi da eta Bizkaian ere gauzatuko da aurten.

Jesus Mari Arizmendi,
Bizkaiko Eskola Txikien koordinadoraren burua

“Ikastetxe Osatugabeak izendatzen gaituzte, gure ustez Eskola Txikiak handiak bezain osatuak direnean”



www.bizkaikoerkolatxikiak.org

Esperientzia IO

Frisiarra, Europako hizkuntza gutxitua



FRISIAKO HIRIBURUAN, LEewardENEN, OSPATU BERRI DIRA “NEW DEVELOPMENTS IN BASQUE EDUCATION IN A EUROPEAN PERSPECTIVE” (AURRERAPEN BERRIAK HEZKUNTZA EUSKALDUNEAN EUROPAKO IKUSPEGITIK) JARDUNALDIAK. EHIGEK PARTE HARTU DU JARDUNALDIOTAN.

Frisian, Euskal Herriko leku gehienetan bezala, elebidunak dira trafiko seinaleak. Izan ere frisiarrek, Europako biztanleriaren erdiak bezala, gutxienez bi hizkuntza erabiltzen dituzte Gobernuan, hezkuntzan, lanean, komunikabideetan, kulturean (antzerkia, literatura, musika, zinema), justizian eta kirolean (Frisiak kirol tipikoak ditu).

Urtean behin, Frisiako hiriak mundu osoko telebistetan ikusten dira hango hamaika hiriak zeharkatzen dituen izotz gaineko patinaje maratoiari esker. Leewardenen hasi eta amaitzen den 200 kilometrotako lasterketa hau kanal izoztuak, ibaiak eta lakuetatik pasatzen da.

Herbeheretako probintziarik handiena da Frisia. 642.000 biztanle ditu eta ia guztiak ulertzen dute frisiarra. Biztanlegoaren gehiengoak frisiarra hitz egiten du neerlandez gain. Frisiarrak ingeleseren eta, nola ez, neerlandez antza dauka.

Frisiarra eskolan

Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak bi hizkuntza ikasten dituzte Frisian: neerlandera eta frisiarra. Gainera, azken urteetan ingelese ere ikasten dute. Hala, %40a frisiarrez, beste %40 neerlandez eta %20 ingelesez ikasten dute.

Bigarren Hezkuntzako hasierako urteetan Frisiarra irakasgai bat gehiago da (astean ordubete). Gainontzeko urteetan Frisiarra azken azterketarako aukerazko irakasgaia da. Azterketa hau egitea erabakitzen duten frisiarrak izango dira gai hizkuntza hau maila altuenean erabiltzeko, bai idatziz eta baita ahoz ere.

Mercator egitasmoa

Frisiako hiriburuan dauka egoitza hizkuntz aniztasuna eta ikaskuntza aztertzen duen Mercator erakundeak (European Research Centre on Multilingualism and Language Learning). Ikerketa, politika eta praktikak egiten ditu arlo horietan, gutxitutako hizkuntzak abiapuntuzat hartuta.


Gai hauen inguruko bi motatako txosten interesgarriak egin ditu: erregionalak eta eskolen sareak. Gutxitutako hizkuntza bakoitzak hezkuntza sistemaren baitan daukan egoera aztertzen dute txosten erregionalek. Europako hizkuntza guztien azterketak egin dituzte, euskara barne. Ikastetxeen sareari dagokionez, 2003an jarri zen martxan Network of Schools

Europako lurralde guztietan hitz egiten dira hizkuntza gutxituak, Islandian ezik

egitasmoa hizkuntza gutxituak hitz egiten diren herrialdeetako ikastetxeek esperientziak eta informazioa elkartrukatzeko asmoz. Sare horretan parte hartzen dute Etorkizuna ikastolak, Zaldupe eskolak, Elorriko institutuak eta Kurtzebarri eskolak besteak beste.

Mercator erakundearen arabera 60 hizkuntza gutxitu daude gutxi gora behera Europan. Eta 55 milioi pertsonak hitz egiten dituzte hizkuntza hauek. Europako lurralde guztietan hitz egiten dira hizkuntza gutxituak, Islandia ezik.

Europa osoan hitz egiten diren 82 hizkuntzetatik ia 60 gutxituak dira. Europar Batasuneko biztanleriaren erdiak ama hizkuntzaz gain beste bat hitz egiten du. Bestalde, %10ak baino gehiagok hizkuntza erregional edo minoritario bat hitz egiten du.



INFO +:

www.Fryslan.nl
www.mercator-research.eu
www.networkofschools.org



1945eko urriaren 31,
Aurrezkiaren Nazioarteko
Eguna. Oinetakoak
eta arropak
banatzen umeei
Sala Cuna-ko
gure lokaletan.

ehun urte solidario

Gordailu solidarioak kontratatuz,
gizarte-proiektuak finantzatzen eta bazterkeria-arriskuan
daudenak babesten laguntzen diguzu.
BBK-k orain 100 urte sortutako gizarte-ekintza.
Eskerrik asko zure laguntzagatik

